



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Ostirala
2008-10-10

VIURTEA 1.530.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



70. hamarkadan mikologia erakusketa eta lehiaketa ugari egiten ziren. Irudian horietako bat. HITZA

PLAZA ZAHARRA 150 PERRETXIKO MOTAREN ERAKUSTOKI

TOLOSA Alpino Uzturre mendi elkarteak 50. urteurrenaren baitan antolatuta, Mikologia erakusketa 10:30etik aurrera bihar ikusgai 3

Aurten ere Gurean, Gipuzkoako Kantu Txapeketa

VILLABONA Bigarren kanporaketa izango da herriko antzokian; biharko lehen kanporaketan, Zumaian, Garazi Egiguren tolosarra ariko da 6



Silvia Carrizok eman zuen atzo Ibarren hitzaldia. I. GARCIA

Emakume etorkinen lan baldintzak izan dituzte hizpide 4



Gaur, 12:00etan
GARBIÑE BIURRUN
epaile tolosarrarekin elkarrizketa digitala

HITZAren erredakzioan izango duzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen keaxak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Kilometroak 2008: Zorionak!

Zorionak Irura!!! Igandekoa mundiala izan zen. Eskerrik asko herri-tarrei eta baita bertara joan zirenei ere. Nik izugarri ondo pasatu nuen (jende gehiegi agian?).

Irune.

Koadrilan joan ginen igandean Irurara Kilometroara. Urtero egiten dugun zerbaite da, edo ia urtero behintzat, eta aurten Iruran izanda nola ez ginen ba joango. Jende ugari hartu zuen parte, ekitaldi ugari zeuden, giro aparta... oso festa polita prestatu zuten. Guk primeran pasa genuen. Zorionak irurarrei!

Miriam

Zoriontzeko da, bai, Irurako Ikastolak eta boluntario bezala aritu direnak egin duten lana, baina kriston jende pila egon zen, gehiegi.

Tolosar bat**Errespetu falta handia**

Alde Zaharreko bizilagun bat naiz, eta gauetan askotan gertatzen den zerbaitek kezkatuta nauka. Iruditzen zait gauean, eta batez ere gauerditik aurrera, ahalik eta soinu gutxien egiten saiatu beharko ginatekeela jende asko lotan baitago. Ba, askori, antza, bost axola zaie hau. Horren adibide garbia pertsianena da, izan ere, gehiegitan entzuten da jendeak nola jeisten dituen soinu ikaragarria ateraz, kontuz eta poliki jeitsi ordez. Hau adibide bat baino ez da, baina iruditzen zait, geroz eta gehiago jendeak ez dituela bere ondokoak kontuan hartzen, geure burua baino ez zaigu inportatzen. Kontua zer da legeak jartzea? Edo legerik ez dagoenez egin daiteke? Horrelako gauzak ahazten ari direnaren sententzia daukat.

Tolosar bat.**Aparkaleku berriak prest, baina ingurua oraindik ez**

Joan den astean Belate eta Rondilla arteko aparkalekuak inauguratu zituzten. Ez dakit ziur baina 200 auto ingururentzako lekua dago. Haue-tatik, gutxi gora behera, erdiak auzotarrentzat dira eta gainontzekoak, errotzioak. Honera arte, gauzak ondo. Aparkaleku beharra zegoen, eta honetarako pauso bat da. Baina kontua da, berriro ere ordaindu egin beharra dagoela hauek erabiltzeko. Goiz eta arratsalde egiten dut lana, eta bazkaltzeko ordubeteko tartea daukat. Erresidenteen txartela dut, baina ia egunero, bazkatzera joaten naizen garai horretan, autoa uzteko

tokirik gabe izaten naiz. Aparkaleku gehiago behar dira, baina kanpoko-entzat nahiz bertakoentzat. Nik ez dut Belateko horietako bat erosi, izan ere, 15.000 euro balio zuten hauek. Baina urtero erresidenteen kuota hori ordaintzen dut, eta hala ere arazoak ditut. Tolosan amaitzen ez den arazoa da aparkalekuena, eta uste dut behar bezalako konponbiderik ez dela aurkitzen. Bestalde, gaitik pixka bat aldentzen banaiz ere. Galdera bat: zergatik inauguratu dira orain (horren azkar, oraindik erabat bukatzeke baitaude) aparkaleku hauek? Izan ere, Rondilla kalearen eta Belateren arteko urbanizazio hori amaitzeko hilabete batzuk falta dira oraindik.

Belateko bat.**1.500 gramoko onddo ikusgarria**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN erredakzioan onddo ikusgarri bat ikusteko aukera izan genuen, bertara eraman baitzuen topatu zuen berrobotarrak. Pozik zegoen, eta ondorengo kontatu zigun: «Pasa den ostiralean, hilaren 3an, inoiz topatu dudan onddorik handiena topatu nuen, Gipuzkoa eta Nafarroa artean nenbilela. 1.500 gramo pisatu zituen. Horrelakoak gutxitan ikusten direnez, lehendabizi herriko elkartearen jarriko dut herriartek ere ikus dezaten, eta ondoren, noski, jateko txanda iritsiko da».

Martin Ugartemendia.**K Kirol jarduera****Gaur****Areto futbola**

- Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean, 2. mailako partida, Laskorain eta Idiazabalen artean.
- Usabalgo beheko kantxan, nesken arteko partida, Laskorain eta Axular taldeen artean, 20:30ean.

Bihar**Areto futbola**

- Usabalgo goiko kantxan, lehenengo mailako partida, Tolargi eta UPVren artean, 16:00etan.

Saskibaloia

- Infantilen triangularra, 11:00etan, Usabalgo goiko kantxan.

- Usabalgo beheko kantxan junior mailako partida, 16:00etan, Tolosa eta Luberrinen artean.

Mahai tenisa

- Gim gelan, Olaederra eta Kraft-Athleticoren arteko partida, 16:30etik aurrera.

Futbola

- Berazubiko zelaian, 16:30ean, gazteen nazional mailako partida: Tolosa CF eta Ariznabarra.
- Usabalgo futbol zelaian, kadeteen 1. go mailan, Tolosa CF eta Idiazabalen arteko partida, 10:00etan.
- Usabalgo futbol zelaian, kadete emakumeen mailan, Tolosa CF eta Euskaldunaren arteko partida, 11:30ean.
- Usabalgo futbol zelaian, lurraldekako 1. go mailan, Tolosa CF eta Bergararen arteko lehia, 15:30ean.
- Usabalgo futbol zelaian, gazteen ohorezko mailan, Tolosa CF eta Eibarren arteko partida, 17:30ean.

Etzi**Futbola**

- Usabalgo futbol zelaian, infantilen ohorezko mailan, 10:00etan: Tolosa CF eta Zumaiako.

Atletismoa

- San Esteban auzoan, Tolosako XXI. Herri Krosa, 11:00etan.

Urriak 13, astelehena**Pilota**

- Beotibar pilotalekuan, 16:30ean, lehen mailako lau t'erdiko txapelketa: Koka eta Berasaluze IX.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)



70. hamarkadan egiten zen ekimen bat berreskuratu nahi du biharkoarekin, Alpino Uzturre elkarteak. HITZA

150 perretxiko mota ikusgai izango dira Plaza Zaharrean

Kultura » Alpino Uzturrek, bere 50. urteurreneko ospakizunen baitan, erakusketa mikologikoa antolatu du biharko.

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre mendi elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien baitan, biharko mikologia erakusketa prestatu du. 10:30ean jarriko dituzte ikusgai denentzat perretxikoak, Plaza Zaharrean.

70. hamarkadan mikologia lehiaketa eta erakusketa ugari egingo ziren Euskal Herrian eta Tolo-

sakoa zen horien arteko garrantzitsuenetakoa.

Alpino Uzturre mendi elkarteak lehiaketa horietako askotan parte hartu zuen Euskal Herrian zehar eta inguruetan eta kasu batzuetan irabazi ere bai. Perretxikozaletasuna asko zabaldu zuen mendizaleen artean.

Ekitaldi haiei esker Tolosa eta Alpino Uzturren gai honetan adituak diren pertsona batzuk badituzte, Pedro Mari Pasaban eta Juan Ignacio Lopez esate baterako. Gainera, gaur egun Aranzadi zientzia elkartearen ari dira lanean mikologia mundua zabaltzen eta gai honetaz jendea aholkuak ematen.

Bihar, goiz gutzian zehar, Plaza

Zaharrean mikologia erakusketa antolatu du Alpino Uzturrek, garai haiek gogoratzeko eta perretxikoen ezagutza zabaltzeko herritarren artean. Bezperan, hau da, gaur, hainbat mendizale eta perretxikozale perretxikoak biltzera joango dira. Eta arratsaldean zehar aipatutako adituak eta beste batzuk Santa Maria parrokiako etxean egongo dira jasotako espezieak bereizten eta sailkatzen. Hori egin ostean, bihar goizean jarriko dute erakusketa. Perretxiko biltzaileak baso eta leku mota desberdinetara (pagadia, pinudia, hariztia, belazea, ibai ertza...) joango dira espezieen bila eta 150 mota desberdin biltzea espero dutela esan dute antolatzaileek.

Hiritik barna ibilaldi kulturala egiteko aukera, Beti-Gaztekoekin

Aisia » Tolosako eraikin garrantzitsuenetako batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen du bihar, adinekoen elkarteak.

ERREDAKZIOA

Beti gazte, Amaroako Adinekoen elkarteak ibilaldi kulturala antolatu du bihar goizearako. Bertan, eskualdeko beste hainbat herritako jubilatuek ere hartuko dute parte.

Sasoeta baserrian egingo dute lehen geldialdia. Hau Tolosako zaharrena da, eta juntetxea ere izan zen. Armariak adierazten duenez, Oria ibaiaren haran hau zen 970-995 urte bitartean Nafarroako errege izan zen Antso Abarkak erregimen estimatzen zuen ehiza lekua.

Sasoetatik San Blaseko basilizarara joango dira. Antzinako ermita hau 1476 urteaz geroztik ezta rriko minen kontrako gotzain-abokatuari eskainia dago. San Blas alde batera utzi eta Corpus Christi parrokiara bideratuko dira. 1913an, frantziatik etorritako Sakramentino ordenekoek komentua eraiki zuten bertan. 1929an berriz, inauguratu zen eliza. Parrokiatik, Santa Klara elizara hurreratuko dira Bizi Beti gazteak elkarteak. Eraikin honetan dagoen eliza XVIII. mendekoa da eta 1666an eraikitako klaratarren komentuari erantsia dago.

Eliza, parrokia eta komentua oraingoz alde batera utzi, eta Tolosako udaletxera zuzenduko dira. XVII. mendean eraikia da hau, eta estilo barrokoa du. Ondoren, Udaletxetik, pauso gutxitara dagoen Idiakez Jauregia ezagutzeko para-

da izango dute. Hau XVII. mendeko jauregia da. Felix Samaniego Tolosako alkate eta fabulagile ospetsua etxe honetan bizi izan zen.

Gaztelako atera bideratuta emango diete jarraipena txangoari. Erdi Aroan eraikitako murruko ate bat horretantxe zegoen. Hemendik, Atauts eskultura ikustera joango dira. Oteizaren eskultura hau Triangulo plazan kokatua dago. Hemendik metro gutxira dagon San Frantzisko komentua ikusteko aukera ere izango dute bisitariek. XVI. mendean eraikitako eliza errenazentista da hau.

Bidaiaren azken txanpan sartuta, zezen-plaza ikusteko aukera izango dute adinekoek. Hau, 1903ko ekainean inauguratu zen. Hemendik Usabal kiroldegira joango dira, eta azkenik, harraska eta iturriak ikusi amaituko dute eguna.

Bigarren stock azoka egingo da asteburuan

Ekonomia » Igarondo merkatarien elkarteak antolatuta, Tolosako 15 dendetako produktuak izango dira salgai.

ERREDAKZIOA

Igarondo merkatarien elkarteak antolatutako bigarren stock azoka egingo da bihar. 10:00etan irekiko dira Beotibar pilotalekuko ateak bihar, eta 20:00ak arte egingo da zabalik. Igandean berriz, 10:00etan zabalduko da factoringa

eta 18:00ak arte bertan erosteko aukera izango da.

Azoka honen helburua da, bertan parte hartuko duten hamabost dendek biltzeak hustutzea. Baita, Tolosako merkataritzaren jarraipena posible egiten duten bezeroei artikulu hauek oso prezio onean eskaintzea. Izan ere, punta-puntako merkatoko produktuak erosi ahal izango dira prezio oso baxuan. Bi urtetan, dendetan pilatutako material eta arropa jarriko dute salgai. Tolosaldeko eta beste eskualdeetako bezeroak erakaritzeko asmoz.

Argazki ikastaroa antolatu du Oargik

Aisia » Mendia eta naturaren inguruko erretratuak ateratzen ikasteko aukera izango da jardunaldi hauetan.

ERREDAKZIOA

Mendia eta natura hobeto edo behintzat, beste modu batera ezagutzeko aukera eskaintzen du orain Oargi Mendi Elkarteak. Honen antolatuta, argazki ikastaroa

izango baita. Saioak atzo hasi ziren eta hilaren 16a bitartean luzatuko dira.

Argazki kamera digitalak nahiz analogikoak erabiltzen ikasteko aukera izango da. Baita, konposizioa eta ingurunearen prestakuntza ere. Tailerraren prezio 25 eurokoa da, eta 688 69 86 42ra deituta edo info@oargi.org helbidera idatzita egin daiteke. Igande honetan Lareon egingo dituzte praktikak, eta datorren ostegunean, arratsaldean, izango da azken saioa.

Bihar, Musika Bandaren doinuekin bidaiatuz

Kultura » Udazkeneko kontzertua eskainiko dute 19:30etik aurrera, Zerkausian; bertako nahiz kanpoko abestiak joaz.

ERREDAKZIOA

Garagardo azokarekin eman zieten hasiera ikasturteari Tolosako Musika bandakoek. Orain, udazkeneko kontzertua eskainiko dute bihar Zerkausian. 19:30ean hasiko den emanaldian Euskal Herri tik

abiatu eta urrutirainoko musika bidaia egingo dute.

Iparragirreraren doinu ezagunak (*Gernikako Arbola*, *Hara nun diran*) eskainiko ditu alde batetik. Baina horrekin batera urrutigiagoko Soutulloren *Puenteareas* pasodoble galiziarra, Fernandez Caballeroen *Gigantes y cabezudos* zarzuela zatiak, Von Suppe kroaziarren *Die Schone Galathea* obertura eta Gershwin konposatzaile estatubatuar ospetsuaren doinu ezagunak (*Rhapsody in Blue*, *An American in Paris*...).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzaria behar dugu. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 605 72 77 30.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 0011 edo 634 91 94 82 telefono zenbakira.

'Kolas mago harrigarria' haurrentzako opera bihar Leidor aretoan ikusgai

Tolosa » Opera Divertimento konpainiaren lana 17:00etatik aurrera izango da, dohainik.

ERREDAKZIOA

Gaztetxoek antzerkiak gozatzeko aukera izango dute asteburu honetan Leidor aretoan. Hain zuzen ere, Opera Divertimento konpainiaren *Kolas mago harrigarria* antzezlanak izango da ikusgai, bihar, 17:00etatik aurrera. Antzerkia eta musika batzen dituen haurrentzako opera da, eta gainera, Tolosako Udaleko Kultura sailak antolatuta eta Kutxak babesturikoa denez, dohainik izango da.

Wolfgang Amadeus Mozart da operaren egilea, eta antzezlanari dagokionez Andoni Martínez Barañano da zuzendaria, antzezle eta abeslariaren taldea ondorengokoa



Bihar Leidorren ikusgai izango den Opera Divertimentoren *Kolas mago harrigarria* antzezlaneko bi une. HITZA



osaten dutelariak: Ana Isabel Salomon (sopranoa) (Bastiana); Andoni Barañano (tenorea) (Bastian); Jose Antonio Garcia (baritonoa) (Ustezko Magoa), Miguel

N'Dong (piano-jotzailea), Aitor Perez (antzezlea) (Peter, Colasen iloba, mago ikaslea), Iraide Urkialaga (antzezlea) eta (Andrea, Peterrren laguna).

1768. urtean, Wolfgang Amadeus Mozart 12 urteko gaztetxoak sortutako *Bastian y Bastiana* opera atseginaren moldaketa da bigar Leidorren ikusgai izango dena.

» HAINBAT DATU

■ Antzezlanak.

Kolas mago harrigarria.

■ Egilea.

Wolfgang Amadeus Mozart da haurrentzako operaren egilea.

■ Zuzendaria.

Andoni Martínez Barañano.

■ Taldea.

Opera Divertimento konpainia.

■ Eguna eta ordua.

Bihar, 17:00etan.

■ Lekua.

Leidor aretoa.

■ Prezioa.

Doan izango da.

Ekitaldi bakarra du eta protagonistak hauek dira: Bastiana artzain gaztea (sopranoa), bere maitalea den Bastian (tenorea), eta Colas, ustezko magoa (baritonoa).

Amateria polita duen istorioa

Istorioa nekazari-giroko herrirka bateangertatzen da. Colas magoak deus egiten ez badu, Bastian eta Bastiana gazteen arteko maitasuna hausteko arriskuan dago. Zorriek amateria duen istorio atseginak *Kolas mago harrigarria*.



Emakume etorkinen lan baldintzez

IBARRA • Bidea irekitzen duten emakumeak izeneko jardunaldien baitan, Silvia Carrizok Malen Etxea Emakume Etorkinen Elkarteok lehendakariak eman zuen hitzaldia atzo Ibarako Kultur Etxean. *Euskadiko emakume etorkinaren lan eskubideak* izan zen hitzaldiaren gaia. Etxe-langileak dira batik bat Malen Etxean elkar-

tean, eta horiek dituzten «lan baldintza kaxkarrez» mintzatu zen Carrizo. Halaber, egin berri duten txostenaren inguruan ere jardun zen. Hor gutxieneko baldintza batzuk zehazten dira emakume etorkin etxelangileentzat, eta hainbat elkarte eta erakunde bat egin dutela hitzarmenarekin ere azaldu zuen. I.GARCIA

iragarkilaburrak.com
EUSKALDEKO IRAGARKI LABURREN ATARIA

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira
tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

'Magia teilatutetan' izango da bihar Lizarben



Bihar izango da ikuskizuna ikusgai, Altzon. HITZA

Altzo » Begoña Bilbao zuzendariaren magiarekin lotutako ikuskizuna da eta bereziki haurrentzako da aproposa.

izarrak asko gustatzen zaizkio, baina ez du ikusi eta uki ezin daitekeen munduan sinesten. Baina Dorleta magoa ezagutuko du gau horretan...

Magoak, gauza arruntenetan ere magia dagoela ikusiaraziko dio Betisari. Baina magia zuria dagoen moduan, magia beltza ere badago. Falasoz da magia ilunaren adierazle, eta Dorleta engainatzen ahaleginduko da, bera bezala mago malztzur batean bihurtzeko.

Betisak honen aurrean zer egingo duen jakiteko Altzoko Lizarbeko gelara joango denak ikusiko du soilik, ez beste inork...

Txalo antzerki taldea

Txalo antzerki taldearen biharko ikuskizun hau Begoña Bilbao idazle eta filologoak zuzendu du, eta musikaz Jose Urrejola arduratu da.

ERREDAKZIOA

Bihar, Altzoko Lizarbeko gelan *Magia teilatutetan* antzezlan izango da, 17:00etan, eta Udalak antolatuta eta Kutxaren laguntzarekin. Bereziki haurrentzat da aproposa biharkoa.

Betisa, Dorleta eta Falasoz dira biharko protagonistak (Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos) eta gertatuko diren magia existitzen den ala ez izango da ardatza. Betisa zerua ikustera aterako da gau batean, izarrak teleskopioarekin begiratzera, San Joan gauean, hain zuzen. Neskari

Ikaztegieta helduentzako bertso eskola bat osatu nahi dute

ERREDAKZIOA

Ikaztegieta herriko gazte talde bat udaletxearekin harremanetan jarri da, helduentzako bertso eskola bat jartzeko nahia adieraziz. Bertsozaleen elkarteekin ere hitz egin du gazte talde honek eta gutxienez sei lagun ez osaturiko taldea beharko litzateke ekimena martxan jartzeko.

Klaseak astean behin izango lirateke Ikaztegieta bertan, eta parte-hartzaileen artean adostutako ordutegian.

Interesa duen orok, izena eman dezake udaletxean hilaren 15a baino lehen (asteazkena). Horretarako telefonoa ere erabili daiteke: 943 65 33 29ra deituz, hain zuzen. «Txapelketa Nagusirako bertsolari-rik ez da agian aterako, baina akaso afarietan bertso kaxkarren bat kantatzeko adinakoa bai», diote ideia izan duten gazteek.

Urkizuko biharko bazkarian 100 bat lagun espero dituzte

ERREDAKZIOA

Bihar Urkizuko biztanleek kaskoan bazkaria egingo dute. Bazkari honetan Albiztur Goiko baserri, Auzotxikia eta Urkizuko bizilagun guztiak, eta baita dagoeneko bertan bizi ez direnek ere parte hartuko dute.

Guztira 100 bat lagun espero dituzte bazkarian. Bazkaria berezia izango da, Alurtxiki auzo Elkarte-ko sorrera ospatuko dutelako honelkin, eta elkartearen aurkezpena eta helburuak adieraziko dituzte, «giro alai eta jatorrean». Berpiztu planak bultzatutako ekimena izango da biharkoa. Ondoren, Tolosako Udaletxearen eta Urkizuren arteko hitzarmena sinatuko dute.

Laburrak

Astehenean hirigintza eta obretarako bilera dago

AMEZKETA » Amezketan hirigintza eta obretarako batzordea eta kontuen batzorde berezia izango da astehenean, 20:30ean balioanitzeko gelan. 2009. urterako Udal Tasak (Ordenantza Fiskalak), kreditu aldaketaren espedientearen onartzea eta Kultur Etxeko proiektua izango dituzte hizpide, besteak beste. Asteartean, berriz, kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da, 20:30ean, balioanitzeko gelan.

Haur eskola ikusteko aukera etzi eguerdian

ALBIZTUR » Aurten lehen aldiz Albizturten haur eskolaren zerbitzua dago. Bertan herriko bost haur daude eta aurki berri bat hasiko da. Haur eskola udaletxearen azkeneko solairuan dago: Albizturko Udalak, haur eskolaren aretoa nola gelditu den ikusteko aukera eman nahi izan die herritarrei, eta egun bat zehaztu du horretarako. Etzi izango da, 12:00etatik 14:00etara. Beraz, nahi duen guztia dago gonbidatuta.



Haur eskola oso koloretsua da. n.u.

Nafarroa Oinezera joateko autobusa osatu nahi dute

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta hilaren 19an Iruñean ospatuko duten Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Autobusean bertara joateko izena eman behar da, asteazkena baino lehen, Udal bulgoetan. Beti ere, Ikaztegieta aterako litzateke, 22ko taldea osatuz gero. Bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du. Datu gehiago zehazten joango dira.

Zeberio II.a eta Badiolaren binakako finalerdia bihar, Lekunberrin

ERREDAKZIOA

Bihar arratsaldean Lekunberriko pilotalekuan Zeberio II.ak Badiolarekin batera Nafarroako Foru Erkidegoko Torneoako (Muebles Polque) finalaurrea jokatu du. Biharko arerioak Urriaz-Iriarte izango dira. Partida irabaziz gero finalera pasako da elduindarra, finalaurreko joanekoa irabazita baita dagoeneko.

Erremonte partidak 17:00etan hasiko dira: lehenik Zulaika-Baletzena eta Martinez II-Etxezabal ariko dira eta ondoren, finalaurrea.

Laburrak

Irunberrira bidaiari antolatu dute hilaren 18rako

ALBIZTUR » Albizturko Udalak datoren hilaren 18rako Irunberrira bidaiari antolatu du: lehenik bertako arroiila (Foz de Lumbier delakoa) bisitatuko dute eta ondoren Aristu upategi ekologikoan bazkalduko dute hura bisitatu ondoren. Arratsaldean, berriz, Zangoza ezagutzeko aukera ere izango da. Herri-arratuetatik eman dezakete izena, baina autobusa betez gero, lehen-tasuna 60 urtetik gorakoek izango dute. 20 euro kostako da eta astehene baino lehen eman behar da izena, ohiko lekuetan. 08:30ean abiatuko dira plazatik.

Alegian, Tolosan eta Ibarren pilota partidak

PILOTA » Gaur Alegiako frontoian 20:00etatik aurrera Aurrera-Saiazen pilota partidak izango dira, seniorren mailan (Lizarribar-Errazkin). Ibarren bihar 10:30etik aurrera senior mailako beste hiru norgehiagoka jokatu dira, bai banaka eta baita binaka ere. Tolosako Beotibarren ere bihar izango dira pilota partidak, 10:30ean hasita, eta hauen artean ere senior mailako izango dira (Baez, Aizpitarte, Albu...).



Guraso Elkartearen saria, 4.228ak

UGARTE » Ugarteko festak bukatu dira, aurreko asteburuan izan ziren. Bertan, besteak beste, Amezketako eskolako Guraso Elkarteak txerri bat zozketatu zuen eta horretarako txartelak saltzen aritu ziren. Bada, zenbaki zoriduna 4.228 izan da, eta boletori hori erosi zuena, berriz, Silvia San Sebastian izan zen. Guraso Elkartearen izenean, «zorianak». HITZA

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak

Erremontari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

ez ahaztu kaskoa!

mendi
Gipuzkoo **Irteera**

URBASA
Bizikleta ibilaldia
Urriak 12, igandea
goizeko 8:30ean IBARRAKO PLAZAN
bizikletak eramateko kamioia egongo da

**EUSKAL HERRIAN ZEHAR,
GEUREA IKURRIÑA!**

250 lagun bilduko dira Euskal Jaiaren bazkarian

Anoeta » Besteak beste, baserritarren eta artisauen eskualdeko azoka egingo dute; baserritarrez jantzita joateko eskatu dute.

» EGITARUAU

Urriaren 11, bihar

■ **17:00.** Sega apustua Argindegi baserriko zelaian. Iluntzean txeko-rra erretxea.

Urriaren 12, etzi

■ **09:45.** Jaiaren aurkezpena dantzariekin. Ondoren, txistulari eta Loatzo musika eskolako ikasleen kalejira.

■ **10:00.** Eskualdeko baserritar eta artisauen azoka, dultzaineroekin. Ikastolako DBH4ko ikasleek pintxo postua jarriko dute.

■ **12:00.** Herri kirolak umeentzat.

■ **14:00.** Herri bazkaria frontoian: txekorria errea. Bazkalostean, herri kanta, Kukuak taldearekin.

■ **17:00.** Iñaki eta Inaxio Perurena harrijasotzaileen saioa plazan. Jarraian, talogileak eta erromeria Kukuak taldearekin. Tarteka Landarren saioa.

ERREDAKZIOA

Anoan lehenengo Euskal Jai ospatuko dute etzi. Bertan, besteak beste bazkari herrikoia egingo dute eta mahai inguruan eseriko direnak 250 lagun inguru izango dira. Beste ekitaldietako bat eskualdeko baserritar eta artisauen eskualdeko azoka izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, azokako eta herriko postu politenari bozkatzeko aukera izango dute bertara joaten direnek.

Antolatzaileek ere inguruko herrikoiei gonbidapena luzatu die Anoetara joateko eta ahal dela baserritarrez jaantzita joateko eskatu dute.

Jubilatu Eguna ospatuko dute etzi Iruran

ERREDAKZIOA

Ohitura den bezala, Irurako jaien ondorengo igandean Jubilatu eta Pentsiodunen Eguna ospatzen dute herrian. Aurten Kilometroak izan direla eta, asteburu bat atzeratu da egun hori eta, beraz, etzi os-

patuko dute. 12:00etan meza nagusia izango da parrokiaren eta gero, 14:30ean, jubilatuen bazkaria egingo dute Zaharren Biltokian. Ondoren, jokuetako sariak banatzea eta musika dantzagarria zuzenean Joxe Javier Mendizabalekin.

Autoestima lantzea umorearen bitartez

ERREDAKZIOA

Villabonako Hutsunea Betez elkartek tailerra antolatuko du autoestima lantzeko umorearen bitartez, hau da. Barereterapiaren bitartez. Tolosako La Escuela de la Risa Inteligente eskolakoekin eman-

go dute tailerra. Hilaren 19an izango da, 10:00etatik 14:00etara.

Izena eman nahi duenak edo infomazio gehiago jasotzeko bi telefonozenbaki ditu horretarako: 943 57 19 68 (Maika) edo 943 69 42 97 (Ana).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aurten ere Gipuzkoako Kantu Txapelketa Gurean

Villabona

» Hiru kanporaketa izango ditu txapelketak eta horietan bigarrena Gurea aretoan izango da, urriaren 18an.

IMANOL GARCIA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak beste behin Gipuzkoako Kantu Txapelketa antolatu du. Hiru kanporaketa izango ditu eta horietako bat, iaz bezala, Villabonan izango da, hilaren 18an. Hain justu Gurea aretoan egingo den saioan izango da eskualdeko parte-hartzerik handiena, guztira sei, bakarlari eta bikoteak kontuan hartuta.

Villabonako saioaren aurretik Zumaian jokatuko da bihar lehenengo kanporaketa eta bertan eskualdetik Garazi Egiguren tolosarrak parte hartuko du bakarlariren mailan. Ondoan izango du Garazi Esnaola piano-jotzaile lizartzarra. Gurea antzokikoa izango da bigarren eta hirugarren kanporaketa Azkoitian izango da, hilaren

» ESKUALDEKO PARTE-HARTZAILEAK

Urriaren 11, bihar

Zumaia Aita Mari antzokian izango da emanaldia, 19:00etan.
■ **Bakarlariak.** Garazi Egiguren tolosarrak parte hartuko du.

Urriaren 18, larunbata

Villabonan, Gurea zine aretoan, 18:00etan.
■ **Bakarlariak.** Oihane Sarasola (Ibarra), Iñaki Barriola (Berastegi),

25ean. Hiru kanporaketak amaitu ondoren antolatzaileek emango dute finalerako sailkatzen direnen zerrenda. Finala Donostiako Antzoki Zaharrean izango da, azaroaren 9an, 17:00etan.

Txapelketa urtero egitea

Guztira zortzi izango dira parte hartuko dutenak eskualdetik: bost bakarlari, bi bikote eta talde bat. Ainhoa Ansa txapelketako koordinatzaileak azaldu duenez, aurten ere «ilusioz» prestatu dute lehia-keta. «Gure asmoa zen txapelketa

Maialen Etxeberria (Berastegi), eta Naroa Geresta (Asteasu)
■ **Bikoteak.** Leire Berasaluze eta Kristina Arantzabe (Villabona), Iñar Sastre eta Leire Berasaluze (Iruña eta Villabona).

Urriaren 25, larunbata

Azkoitian izango da saioa, Baztar-txo Antzokian, 18:00etan.
■ **Taldeak.** T-Klax (Ibarra).

berreskuratu eta urtez urte egitea eta horixe lortzen ari gara».

Parte-hartzea zertxobait jaitsi bada ere, iaz bezala hirur saio osatu dituzte finalaren aurretik. Iaz bezala ere Villabonako kanporaketan jende ugari joatea esopro du Ansa. «Aretotik kanpo jendea gelditu zen dena bete zelako», gorrotzen du. «Gainera oso atsegina izan zen ikustea gazte jende asko joan zela saio ikusi eta entzuteran, euskal kantuzaleatasunerako mesedegarri baita adin horretakoak horrelakoetara joatea».

«Sentimenduak espresatzeko modu bat da kantatzea»

GARAZI EGIGUREN

» Abeslaria

Tolosa » Iaz Haur Kantu Txapelketan parte hartu ondoren, aurten helduen mailan ariko da abeslari tolosarra.

I. GARCIA

Garazi Egiguren (Tolosa, 1992) izango da eskualdeko parte-hartzaile bakarra Zumaian egingo den kanporaketan. Garazi Esnaola piano-jotzaile lizartzarra izango du ondoan.

Lehenengo urtean haur mailako txapelketan parte hartu zenuen. Nola joan zen?

Esperientzia oso polita izan zen. Bi kantaldi izan ziren Gipuzkoan, horietako bat Tolosan, eta bakarlari bezala hautatu ninduten Euskal Herriko Txapelketarako. Miarritzen izan zen finala eta bigarren gelditu ginen.

Iaz bezala, Garazi Esnaola lizartzarra pianoa jotzen dagoela parte hartuko duzu.

Bai, oso gustura aritu ginen iaz eta errepikatzea pentsatu dugu. Gure artean giro ona dugu eta segurtasuna ematen du beste batekin eszenatoki gainean egotean.

Nolatan parte hartzen duzu Garazi Esnaolarekin?

Bere aitak, Jesus Mari Esnaolak,



HITZA

musika akademia du Tolosan eta bertan trikitixa ikasten dut. Hortik sortu zen batera parte-hartzearena.

Formazioaren aldetik nola aurkezten zarete?

Garazik pianoa jotzen du eta nik abestu egiten du, ez du instrumenturik jotzen.

Zein abestirekin parte hartu behar duzue?

Biabesti kantatu behar ditugu. Horietako bat Berri Txarrak taldearen *Bueltatzen* da eta bestea Joseba Sarrionandiak egindako poesia antologia batetik atera dugu olerki bat, *Zuretzat nituen arrosak hazi*, eta musikatu egin dugu. Jesus

Mari Esnaolak lagundu digu lan horretan.

Zer sentitzen duzu oholta gainean zaudenean?

Urduritasuna sentitzen da, hainbete jendearen aurrean abesteko urduritasuna ematen du. Baina behin oholta gainera igotzerakotan, normalean urduritasunak joan egiten dira.

Zer da zuretzat kantatzea?

Asko disfrutatzen dut kantatzean eta sentimenduak espresatzeko modu bat ere bada.

Izango duzu laguntzarik publikoan?

Familiakoak eta hango lagun batzuk ere joango dira ikustera.



Mugaz-muga Leizatik Goizuetara joango dira bihar. Etzi Goizuetatik Leitzara itzuliko dira, beti ere zaldiekin. HITZA

Aurrera Perra Taldeak bi eguneko zaldi ibilaldia antolatu du Goizuetara

Leitza » Bihar abiatuko dira herritik eta gaua Goizuetan jai giroan igaro ondoren itzulerako bidaia egingo dute etzi eguerdirako.

ASIER IMAZ

Aurrera Perra Taldeak *Leitza Mugaz-Muga 2008* ekitaldia antolatu du astebururako. Bihar eta etzi, Leizatik Goizuetarako joan eto-

ria egingo dute zaldiekin. Parte hartu nahi duenak 696 10 15 64 telefono zenbakira deitu beharko du.

Mugaz-muga Goizuetara

Aurrera Perra Taldeak zaldi gainean ibiltzeko edozein aitzakia bilatzen du eta ibilbide zoragarri bat egiteko aukera baldin badute, hobe. Horretaz gain, euren deialdi inguruko eskualdeetan oihartzun handia izaten du, horren adi-

bide garbia izan zen iragan hilabeteetan Leitzan antolatu zuten Zaldi Eguna. Oraingo honetan ere Tolosalde, Baztanetik, Lesakatik eta beste hainbat herrietatik etorriko dira Aurrera Perra Taldearen babesera. Lehen aipatu bezala, parte-hartzea irekia izango da eta izena eman nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak 696 10 15 64 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango du.

Ibilbideari dagokionez, antola-

tzaileen esanetan ibilbidea «mendizaleen ohiko bide bat» izango da. Eguraldi onarekin gainera, «paisaia ikusgarriak» ikusteko aukera izango dute ekitaldian parte hartzen dutenek, «itsasoa ere ikusten baita hainbat puntutatik». Goizuetara joateko 5 ordu inguru ibiliko dira zaldi gainean, itzuleran berriz 3 ordu nahikoak izango dituzte. Gauzak horrela, etzi, bazkal ordu-rako etxera joan nahi duenak goiz itzultzeko aukera izango luke.

Bosgarren zaldi ibilaldia

Aurrerako kideek lehen urtean egun bateko ibilaldia egin zutela aipatu dute, *Mugaz-Muga* Leitzan barna. Izena hortik datorriko ekitaldiari. Bigarren ibilbide ezberdina egin zuten eta hirugarrenean Beitza Laibainera (Nafarroa) joan ziren. Aurten bezala, orduan ere bertan lo egin zuten. Iaz Goizuetara joan ziren baina egun pasa. «Bertan, herriaren erantzuna oso ona izan zen eta aurten lo egingen geratzea erabaki dugu. Gitarra, mexikar abestiak, ...». Lagun giroa ere azpimarratu dute ekimenaren altxor preziatu bezala.

» EGITARAUA

Urriak 11, bihar

- **09:30ean.** Kafea Inguruarte.
- **10:30ean.** Mugaz ibilbidea: Leitzeta-Urepel-Mandoegi-Goizuetara.
- **Hamaiketako.** Leitzelarreen.
- **Aparie.** Humore Ona elkartearen egingo dute.

Urriak 12, etzi

- **09:30ean.** Gosarie.
- **10:30ean.** Mugaz ibilbidea: Goizuetara-Ibero-Leitzelarrea-Leitza.
- **Bazkaria.** Bakoitzak ahal duen lekuan.

L Laburrak

Gripearen aurkako txertaldia abian

LEITZA » Nafarroako Osasun Zerbitzuak gripearen aurkako txertaldi kanpaina hasiko du Leitzan urriaren 13tik azaroaren 16a bitarte. Gripearen aurkako txertoa Leitzako Osasun Etxean eskainiko dute eta hartu nahi duenak alde zurretik 948 51 08 00 telefono zenbakira deitu beharko du 08:00etatik 10:00etara erizainarekin txanda eskatzeko. Informazio gehiago nahi duenak zenbaki berera deitu beharko du.

Bide Ertzean taldearen kontzertua urriaren 18an

BERASTEGI » Bide Ertzean talde tolosarreko kideek azaldu dutenez, Berastegiko Urepel elkartearen emanaldia eskainiko dute urriaren 18an, 22:30ean. Sarrera doan izango da eta duela 10 urte hasi zuten proiektuko abestiak joko dituzte. «Oraindik asmo eta proiektu asko» dituztela buruan aipatu dute, lan berriaren inguruko xehetasunak laster emango dituztela gaineratuz. Urepel elkartearen eskainiko duten kontzertuan, aspaldi jo gabe dituzten kantuak gogoratuko omen dituzte.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Doccas David-en hilketara salatu dute

GIZARTEA » Bilgune Feministak elkarretaratzeak egin zituen herenegun, Tolosan eta Leitzan. *Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egin!* lelopean eraso sexistekin amaitzea eskatu zuten. Protesta hauen bidez, Santurtziko (Bizkaia) Doccas David 26 urteko neskaen hilketara salatu zuten. Santurtzin jazotakoarekin Euskal Herrian bost dira dagoeneko emakumeen

aurkako bortxakeria erabiliz bizia kendu dieten andren kopurua. Doccas David igande goizean hil zuten Santurtziko bere etxean. Eskuak eta oinak lotuta zituen eta odol arrastoak zeuden etxe osoan zehar. Bere senarrak hilketara berak egin zuela aitortu zuen, Euskal Autonomi Erkidegoko Herri-zaingo Sailaren arabera. A.M.AZ



19°
15°

GOIZA	LAINOAK
ARRATS.	EURIA
BEROENA	21°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Villabona.** Izki parke naturalera (Araba) irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 19rako. Izen-ematea, elkartean.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak, bere 50. urteurrenean, mikologia erakusketa antolatuta du bihar goizean Plaza Zaharrean. Gaur perritxikuak bildu eta Parroki etxera eraman daitezke 15:00etatik aurrera, bereiztu eta sailkatzeko.
- **Tolosa.** Iturriza jubilatuta elkartea (Euskal Herria plazakoa) Iratxera irteera antolatuta du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelean, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izen-ematea, elkartean 34 eurotan (36 ez bazkideek).
- **Tolosa.** Euskara ikastaroak etorkinentzat, Ereite elkarteak antolatuta, larunbatero, Kultur Etxean, 10:00etan.

Antzerkia

- **Tolosa.** Charo Lopez, Eusebio Lazaro eta J.L. Torrijo antzezleek *El otro lado* antzezlan eskainiko dute Leidor aretoan 20:30ean.

Musika

- **Tolosa.** Bitz eta lori taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.


Jaiak

- **Tolosa.** Berazubi auzoko jaiak: 19:30ean jaien hasiera; 21:30ean zahagi sagardo; 22:00etan bakarriketak; 23:00etan kontzertuak: Bocio, Peachy Joke eta Inde Kixen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.



Akordeoi saio aparta

TOLOSA ● Torrelavegan (Kantabria, Espainia) izan ziren iragan asteburuan Isidro Larrañaga akordeoi orkestrako kideak Bertan, Concha Espina izeneko antzokian eskaini zuten emanaldia tolosarrek. Isitxo Larrañagak gogoratzen duen bezala, «lehen nazioarteko lehiaketa egiten zen bertan, eta guk 2001, 2002 eta 2003an lehen saria irabazi genuen akordeoi atalean. Baina, azken 5 urteetan ez dute lehiaketarik egin, eta aurten jaialdia antolatuta dute, eta gu gonbidatu berezi bezala joan ginen». Jaialdiari amaiera eman zioten euren kontzertuarekin, eta hau «oso ondo» atera zela diote. «Jendetza handia bildu zen, ikuskizun polita eskaini genuen, eta horretaz gain, tratu oso ona eman ziguten, etxean bezala sentitu ginen». Kontzertuarekin «oso gustura» geratu dira, eta aurrera jarraitzeko «gogotsu» daude orain, izan ere, geroz eta aukera gutxiago ditugu, geroz eta kontzertu gutxiago baitaude. Argazkietan kontzertuko uneak, tartean Guridiren *El Caserio*-rekin egin zuten koreografia bi dantzari-rekin. I. UNZUE

A Agurrak



Zorionak!

Unai (Alegia). Gaur 11 urte. Urte askoan eta muxua asko denon partetik. Ondo ospatu!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu



"Al Otro Lado" antzezlan



2 sarrera pare

zozketan

irabazleak:

- Lurdes Iraola Ibarbia (Tolosa)
- Gorka Otxoa-Aizpurua Agirrezabalaga (Anoeta)

Tolosako Leidorren gaur, ostirala
20:30etan

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue. ZORIONAK!

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**